

PROBA ESPEZIFIKOA

2020ko PROBA

HISTORIA

PROBA

ERANTZUNAK





Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

1. Testu-iruzkina. (4 puntu)

“(Nazionalismoak)”, printzipioz, Estatua xede jakin baterako bitartekotzat soilik hartzen du, zeinaren helburua gizakiaren arrazaren kontserbazioa baita. Ez du, beraz, arrazen berdintasunean sinesten; aitzitik, arrazen aniztasuna mirestean, arrazen artean dagoen alde kualitatiboa ere onartzen du. Egiaren pertsuasio horrek behartu egiten du indartsuenaren nagusitasuna sustatzera eta behekoa eta ahula azpiratzea eskatzera, unibertsoa menderatzen duen borondate gupidagabearen arabera. Azken finean, gorazarre egiten dio horrela Naturaren printzipio aristokratikoari, eta lege horren ebidentzian sinesten du, azken izaki arrazionala izanda ere. Ideologia arrazistak balioak bereizten ditu, ez bakarrik arrazen artean, baita banakoen artean ere. Ideologia horrentzat, nortasunaren meritua nabarmentzen da masaren multzotik, eta, beraz, marxismoaren disoziazio-lanaren aurrean, masaren existentziarako aurretiko indar gisa jokatzen du. Ideia etikoa izateko arrazoia ukatzen dio, ordea, baldin eta, bera, arraza gisa, goragoko etika bateko herrien bizitzarako arrisku bat bada, zeren eta, bastart edo mulatu bihurtutako mundu batean, gizakiaren eder eta duinaren nozio oro betiko desagertzera predestinatuta bailegoke, bai eta gizateriarentzako etorkizun hobea baten ideia ere (...)

Hitler, *Nire borroka*, 1925

GALDEKIZUNAK:

- Sailkapena
- Analisia
- Iruzkina
- Konklusioak




HISTORIA OROKORRA

HISTORIA GENERAL

2. Ordenatu itzazu kronologikoki gertaera hauek: (2 puntu)

- A. Alemaniak Polonia inbaditzea
- B. Italia gerran sartzea
- C. Aliatuak Normandian lehorreratzea
- D. Bi Alemanien bat-egitea
- E. Varsoviako Ituna
- F. Pragako Udaberria
- G. Marshall Plana
- H. Europako Ekonomia Erkidegoa sortzea
- I. Kubako iraultza
- J. Mao Zedong-ek Txinako Herri Errepublikak aldarrikatzea

3. Egin ezazu mapa honen iruzkin labur bat. (2,5 puntu)



4. Defini itzazu, labur, termino hauek. Zerrendako seietatik hiru hautatu behar dituzu. (1,5 puntu)

- 1. Bizargorri operazioa.
- 2. Kolaborazionismoa eta erresistentzia.
- 3. Israelgo estatua.
- 4. Solidarnosc (Polonia).
- 5. "Bizkar bustiak".
- 6. Herri-demokraziak.



EBAZPENA HISTORIA OROKORRA (2020)

• KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

• EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea, lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderei.
- Zuzen interpretatzen ditu mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.
- Zuzen iruzkintzen ditu, alderdi nabarmen guztietan, emandako testua.

1. Adolf Hitlerren *Nire borroka* nazismoaren Bibliatzat hartzen da. Obra horretan biltzen dira II. Mundu Gerra eragin zuen ideologia politikoaren funtsezko printzipioak.

SAILKAPENA: Lehen mailako iturri politiko eta publiko bat da, Hitlerren beraren eta NSDAP Alemaniako Alderdi Nazional Sozialistaren ideiak zabaltzeko idatzia. Adolf Hitlerrek 1923an Garagardotegiko Putsch-a izeneko estatu-kolpea ematen saiatzeagatik espetxean egon zen bitartean egindako saiakeratik dator pasartea. Saiakeraren izenburua *Nire borroka* da, eta bertan islatzen dira Hitlerren pentsamendu guztiak eta NSDAP edo Alderdi Nazional Sozialistaren ideologia.

Hitler Austriaren eta Alemaniaren arteko mugako herri txiki batean jaio zen, eta, gaztaro frustratu baten ondoren, Alemaniako armadan sartu eta Lehen Mundu Gerran borrokatu zen. Gerra amaitu ondoren, Weimarko Errepublikaren eta Versaillesko Bakeak 1919an ezarritako gerrako kalte-ordainen aurkako zeluletan sartu zen. 1921ean NSDAP (Alemaniako Alderdi Nazional Sozialista) sortu zuen; alderdia, hasieratik, antisemita, nazionalista eta antiparlamentario agertu zen. 1933an, hauteskunde batzuen ondoren Alemaniako kantziler



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2020

HISTORIA OROKORRA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2020

HISTORIA OROKORRA

bilakatuta, estatu totalitario bat ezarri zuen, handik urte batzuetara Bigarren Mundu Gerraren hasiera eragin zuena.

ANALISIA: *Nire borrokaren* ideia nagusia arrazismoaren defentsa porrokatua da. Arrazismoa nazien doktrinaren alderdirik garrantzitsuenetariko bat izan zen, eta arrazen arteko funtsezko desberdintasunak daudelako sinesmenean oinarritzen da. Horren ondorioz, arrazak goiko arrazetan eta beheko arrazetan sailkatzen dira. Goikoak indar handiena eta gobernatzeko eskubidea dutenak dira, eta behekoek, berriz, goikoen boterearen mendera makurtu beharko dute. Ideia arrazista horiek darwinismo sozialaren teorien bilakaera dira; XIX. mendean garatu zen teoria hori, eta eragin handia izan zuen Europan, kolonialismori emanda baitzegoen. Hala ere, nazismoarekin lortuko du teoria horrek puntu gorena; izan ere, haren azken asmoa arrazaren purutasuna zaintzea izango da, kasu honetan ariar arrazarena, eta beheko arrazak sarraskitzea, gizateriarentzat etorkizun hobea lortzearen.

Bada beste ideia bat testuan, arrazoibide arrazistari laguntza ematen diona: indartsua ahulari nagusitu behar zaio. Horrek berekin ekarriko luke indartsuek ahulen gaineko eskubideak izatea, indartsu izate hutsagatik. Ideia hori ere ez da berria; Hobbesen *Leviathanen* aurkitu ditzakegu haren sustriak.

Testuaren hitzen azpian dago, halaber, gizon guztiak berdinak ez direlako ideia; beraz, elite batek gobernatu eta masaren gainean gailendu beharko luke, eta masa hori haien mende eta zerbitzura geratuko litzateke.

Azkenik, kritika egiten dio marxismoari, bi oinarritan funtsatua. Lehena, marxismoak jotzen duelako gizaki guztiak berdinak direla eta, gainera, berez onak direla; eta bigarrena, disoziazio-lana, klaseen kontzeptua (klase-borroka) nazioaren kontzeptuaren aurretik jartzen duelako, eta, hala, nazioa zatitzea lortzen duelako. Nazismoan, edo faxismoan, nazioaren kontzeptua beste edozein printzipioren gainetik dago; nazioak helmuga komuna du, eta gizarte-klaseek bat egin behar dute hura lortzeko. Nazioan klase-desberdintasunak egotea gizakien arteko desberdintasunen azpian dagoen zerbait naturalizat hartu behar da.

IRUZKINA: Hitlerrek eta NSDAPek botoen % 32rekin irabazi zituzten 1932ko hauteskundeak. Hala ere, Hindenburg-ek, Weimarko Errepublikako lehendakariak, ez zion boterea eman nahi, eta Alderdi Kontserbadoreko Von Papeni eman zion, baina egoera ekonomiko gogorrek, Parlamentuan gehiengo falta izateak eta Hitlerrek koalizioa osatzeari uko egiteak ezinezko bihurtu zuten gobernu osatzea. 1933ko urtarrilean, Hindenburgek kantziler izatea eskaini zion Hitlerri, baina gehiengoko gobernu behar zuen bere politikak aplikatu ahal



izateko. Hala, Hitlerrek presioa egin zion Hindenburg-i 1933ko martxoan hauteskundeak egiteko. 1933ko otsailean, Reichstag-en sutea gertatu zen. Hitlerrek hori aprobetxatu zuen komunistei eta gobernuaren oposiziokoei jazartzeko, eta, hauteskunde-kanpaina handi batekin, 1933an garaipena lortu zuen, oraingoan gehiengo soilarekin. Une horretatik aurrera, estatu demokratikoaren desegitea hasi zen. Une gorena 1934an iritsi zen, Botere Guztien Legearekin: botereen banaketa bertan behera utzi, gainerako alderdiak legez kanpo utzi eta bere alderdiko sektorerik erradikalena, Röhm-ek gidatzen zuen SA, deuseztatu zuen "Labana Luzeen Gaua" izenekoan. Himmler-en Gestapo erakundearen laguntzaz, komunistei, disidenteei eta edozein motatako oposizio politikoari jazartzeari ekin zion. Politika arrazista 1935ean hasi zen, "Alemaniar Odol eta Ohorea Babesteko Legearekin". Lege horretan, alemaniar nazionalitatea ukatu zitzaion odol judua zutenei, eta ezkontza mistoak debekatu ziren. Gorenaldia 1938an iritsi zen, "Kristal Hautsien Gaua"rekin. Ernst von Rath-en hilketa aitzakiatzat harturik, juduen aurkako jazarpenera hasi zen: sinagogei su eman, eta 2.000 judu hil zituzten. Handik gutxira, kontzentrazio-esparruak zabaldu ziren, hala nola Auschwitz edo Matthausen. Naziek eragindako sarraskirik handiena Bigarren Mundu Gerran gertatu zen: 6 milioi judu hil ziren. Gertaera horri Juduen Holokaustoa deritzo. Jazarpenak, juduei ez ezik, beheragokotzat hartutako beste herritar batzuei ere eragin zien, hala nola homosexualiei eta bestelako arraza minoritario batzuei.

ONDORIOAK: Juduen Holokaustoa *Nire Borroka* lanean adierazitako ideien ondorioa da, eta gizateriaren historian ezagutzen den genozidiorik handiena da. Gerraren ondoren atxilotutako buruzagi nazi asko Hagako Nazioarteko Auzitegiak zigortu zituen Gizateriaren aurkako krimenak egiteagatik. Genozidioak nazioarteko politikan izan zuen berehalako ondoreetako bat Israelgo Estatu sortzea izan zen, 1948an. Esan behar dugu Juduen Holokaustoa ez dela ezagutzen den azken genozidioa; badira kasu nabarmenak, hala nola Ruandakoa, hutu eta tutsien artean, eta, berrikiago Europan, Milosevic-ek Balkanetako Gerran egindakoa. Eta ez da desagertu ideologia arrazista; gaur egun, oraindik ere, bizirik dago, baita herrialde garatu eta kultura demokratiko handikoetan ere, hala nola Frantzia, Le Pen-en Fronte Nazionalak ordezkaturata.

2.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A	B	C	G	J	E	H	I	F	D



3.

Erresuma Batuak onartu zuen aspaldiko koloniaren independentziarako bidea prestatzea, eta, 1946an, Batzar Konstituziogile bat eta Indiako trantsizio-gobernu bat sortu zituen. Hala ere, arazoak areagotu egin ziren. 1930etik aurrera, hinduen eta musulmanen arteko liskarrek bortizkeria izugarria eragin zuten, eta egonkortasun politikoari eragin zion. Izan ere, Muhammad Ali Jinnah buru zuen Liga Musulmanak estatu islamiar independente bat sortzearen alde egin zuen. 1947an, Erresuma Batuak kolonia bi lurraldetan banatzea onartu zuen: India, gehiengo hindukoa, lurraldearen % 80 hartzen zuena; eta Pakistan, gehiengo musulmanekoa, %19 hartzen zuena, bata bestetik 1.800 kilometrora zeuden bi lurraldez osatua.

4.

1. Bizargorri Operazioa izena erabili zuen goi-aginte alemaniarrek SESBren inbasioa izendatzeko. Inbasioa 1941eko otsailetik zegoen prestatuta, eta ustekabean harrapatu zituen sobietarrak. Hitler, hala, bere helburu politikoetako bi lortzen saiatu zen: munduko komunismoa garaitzea eta bizi-espazioa irabaztea.
2. Kolaborazionismoa eta erresistentzia: Erresistentziak nazismoaren eta alemaniarren okupazioaren aurkako sentimendua adierazten zuen Europan, eta kolaborazionismoaren aurka altxatu zen. Zenbait faktorek, ideologikoez gainera, sustatu zuten erresistentzia herrialde okupatuetan: alemaniarren presentzia militarra, konfiskazioak, jazarpen politikoa, etab.
3. Israelgo estatua: 1917an, lord Balfour britainiarrek aukera eman zuen Palestinan juduentzako egoitza nazional bat sortzeko, munduko leku guztietatik hara emigratu baitzuten. Ordura arte Palestinako lurraldea zenean Bigarren Mundu Gerraren ondoren Israelgo estatua sortzearen ondorioz, zona hori munduan tentsio belikorik handienetakoa bihurtu zen.
4. Solidarnosc (Polonia): 1980ko irailean, "Solidaritatea" izeneko sindikatu-federazio bat sortu zen Polonia komunistan. Hasieratik, Lech Walesa izan zen burua, eta Eliza katoliko herrialde hartan hain itzaltsuak laguntza eman zion. Sortu eta urtebetera, bederatzi milioi afiliatu zituen sindikatuak. Gero eta eragin handiagoa izan zuen, eta berak gidatu zuen Jaruzelsky jeneralaren gobernu komunistaren aurkako poloniar oposizioaren parte handi bat.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2020

HISTORIA OROKORRA

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS*

2020

HISTORIA OROKORRA

5. “Bizkar bustiak”: Izen horrekin izendatzen dira Rio Grande, Mexikoren eta Estatu Batuen arteko muga naturala, igerian zeharkatzen duten hispanoak, batez ere mexikarrak. Bizi-baldintza hobeen bila dabiltzan emigratzaile ilegalak dira.
6. Herri-demokraziak: Erregimen komunisten berezko gobernu-sistema; beren konstituzioetan herriaren gobernu esan nahi duen jatorri grekoko termino hori erabiltzen dute, nahiz eta, haietan, ezarritako sistema ideologikoak banakako eskubideak mugatzen dituen.